# BIZI-INDAR

Gizonari bizi-indara "geroak" damotso. Pendizean "geroari" eldu begio ta ez da jausiko. Ilunetan bizitz-bide-nastuak zeaf "geroari" begiratu begio ta eldu beaf eban lekura, elduko da.

"Geroan" usterik ez daukona, berez kukiltzen da; norbere negaf-malkotan, norbere burua itoten dau olakoak.

Inguru guztia mendiz-esituta ikusten dau. Urtepiderik ez dau ikusten, bere ustez urifiera begiratzen dauanafen. Ibaf-sakoneko oxiñaren ituna!

Tarteka-marteka mendi-bitaftean zeaf jauzika duen ibaitxoaren alaia! "Geroaren-miña" dau ibaitxo orek. Ibaitxo ofen-antzo, geroagan ustea daben gizona "geroak" aizetzen dau, "geroak" zirikatzen dausku; beti bafi ta beti befitan bere gogoa.

Zeiñen indartsua dan, gizonari "geroak" damotson ezkoa! Afi-aftean duan ibaitxoaren antzera, "geroak" daruan biotza beti dogu ontzirika.

卐 卐 卐

"...Jaungoikoa'ren bideetan, estopoa gorago igoteko maila da, ez eragozpen; jausi beaf zana botatea, baiña gertetea da; Juda, Bifeosokundean Kisto'ren lagunkide izan zan, eromatar gudariak eskuratu al-egien Kisto laztandu ebanean..." .

Juda Kisto'ren lagunkide... Bai, etz diñosku goiko itzotan Ibello idazle trebeak.

Kisto'ren adizkideei, Kisto'ren lagunei, une aretan Kisto galtzea ez yakoen on. "Gaaoaro" begiratu ezkero baiña, Kisto iltea... pozbide izan eikiuen.

Kalbarioan il-aufez, ilpefa zan Kisto eben lagun; Berbizkunde ostez baiña Kisto ez-ilkofa dabe tafteko.

"Geroa" beti yaku pozkafi kistafol. "Gerokoan" siñesten dogunol, gero ofek beti darukusku "berpizte" pozkafia. Siñestedunoi ostinguei bafizen latz, malkotsu ez yaku bizia.

Aldats-goreak, aldiko nekeak ez gaitu aultzen; "geroan" uste dogunok aldats-gorean ostean, nai ta nai ez laua edo aldats-berea dagona dakigu. Emengo neke ta lofak eurak diñoskue ori biotz-bafenean.

卐 卐 卐

Onen naste, ostopo, esi ta galpide aundiak ikusirik gure barruan sortzen diran zotiñak, geroak baretu bekiguz.

Itun, nastetsu, lafi dakusguna "aldia" dogu. Kistafok "geroa" beti dogu argi, pozbidetsu, bizi-indaf-emoile.

"Burukea asi orduko, lef egiten dabenak, lanean asi orduko nekatzen diranak ez doguz gure arteko"—iñoan idazle argi batek. Olako oreik "aldian" idoro nai dabe bizi-indafa.

Nekea ta ikarea besterik ez da benoi "negafok lagata eldu lanari" esango dautsoegu.

"Kalbariora" begiratzen dabe, baiña Kalbario-mendian gurutzea utsik ikusten dabe bakafik. Kalbario-mendian baiña gurutzea utsik ikusten dozunean, ilobia zabalik dagoana gomutaratu egizu.

Guratzean il zan Kisto, baiña berpiztu, be, egin zan Kisto.

Txafa, obena, gokaiztoa indartsuak diranafen, Kisto indartsuago da.

"Geroa" beti yaku lagun. Geuri yagokunez jokatu daigun ta nagusi atarako gara; "geroa" geure eskuetan dogu.

"La verdad no sucumbe sino en las manos de los que la abandonan" idatzi eban aspaldi jakintsu batek.

Gurutzearen dabilenik iñork ezin garaitu daike, zauritu edo il egin afen, be. Gurutzearen il dana, geroa berpiztuko dau.

Gurutzean il zan, baiña irugafen egunez berpiztu egin zan Kisto, be.

ARETXIÑAGA.